

## **Erdi-Aroko Euskeraren Idazkera**

*Araba'k eta Gaztela'ko Erregeak 1258'an Ziñatutako Ituna*

1'n.—Ez dut uste gure lurraldeko errien izenak antziñako idazkietan nola idatziak dauden aztertzen astea alperrikako lana izango danik, azkeneko urte auetan askok, Arana Goiri'k sortutako eta Euskaltzaindiak 1920'ean onarturiko idazkera aldetzeko, antziñako larrukietara jotzen bait dute.

Aspaldi nabil Kukulla'ko Donemillaga'n idatzi ziran larrukien bilduma auznartzen. Baiña, lan luzea bait da auznarketa ori, gaur, Landazuri'k bere Araba'ko Edestian dakarzkin dokumentu zarrak aztertzen asi nai nuke, azterketa au biar eta etzi ere jarraitzeko asmotan.

Landazuri'ren liburuaren izenburua, auxe duzute: «Suplemento (azkeneko zati au, bosgarrena, bakarrik erabiliko bait dut nik), a los quatro tomos de la Historia de la M. N. y M. L. Provincia de Alava: Disertaciones y Apéndices de Documentos Literales, para pruebas, e ilustración de su Historia Civil y Eclesiástica. Por D. Joaquín Joseph de Landázuri y Romarate, hijo de la misma Provincia. En Vitoria, por Baltasar Manteli, Impresor de la Ciudad, y de la R. S. B. — MDCCXCIX».

Liburu ortatik artuak izango dira beraz, emen argitaratuko ditudan xeetasunak. Gaurkoak, 1258'ko idazki batetik jasoak dira.

Izenburu au ipintzen dio Landazuri'k amairugarren mendeko itun-agiri oni: «Convención entre el Rey D. Alfonso el Sabio y los Caballeros de la Cofradía de Alava, con el Motivo de las Aldeas que le cedieron á este Monarca, y Fueros que entre sí establecen en Segovia á dieciocho de Agosto año de 1258» (Larrauri, «Suplemento» 79'n orrial.).

2'n.—Itun edo tratu ortan argentzen diran euskal-izenak:

Amaya	Harria	Opauqua
Aranguyz	Harriaga	Oquina
Arcaya	Harrizabalaga	Oretia
Arriaga	Harrilucea	Quartango
Arroyabe	Healy	Salcedo
Aulanga	Hyhurriguchi	Salvatierra
Aybar	La Rahur	Sallurteguy
Betunno	Lasart	Sarricurri
Castiello	Leniz	Trevinno
Chavarri	Ligordara	Vhula
Dardoza	Losa	Urant
Ehaly	Marquiniz	Valle Govia
Eredia	Mendiola	Villodas
Escanno	Mendoza	Zadorra (Ibaia)
Faidu	Mijancas	Caldiaran
Gardeley	Miranda	Zuhazu.
Harechavaleta	Olharizu	

3'n.—So-egiogun zerrenda orri: H'z asten diran erri-izenak 7 dira. Auek :

Haretxavaleta	Harriaga	Harrizabalaga
Harria	Harrilucea	Healy

—H'a asieran eta itzaren barnean daraman izena, bat barkarra da; ibi baten izena: HYHURRIGUCHI. «Que pueda pescar en rio de Zadorra desde la puente de Arroyave fasta el Vado de Hyhurriguchi». Zadorra-beera, Arroyave deritzan errixkatik amarrenbat kilometrora, gaur Yurre izeneko erri-txoa dago. Bai ote du Hyhurriguchi arekin zer ikusirik? Yurre'k, eta H'z erantzitako Yurri'k, alkarren antza aundia bait dute.

—Abostizki edo bokalen artean H daramakitenak 4 dira:

Ehaly  
la Rahur

Vhula  
Zuhazu

—H'a lagundun-izki edo kontsonanteen ondorean dutenak, berriz, bi aurkitu ditugu: BEARTH eta OLHARIZU.

4'n.—Ikus dezagun orain H oiek zer erakusten diguten:

—«AR» izkiez asten diran itzak, lau aldiz daramate H'a:

Harria  
Harriaga

Harrizabalaga  
Harrilucea

Zerbai erakustekotan, beraz, ba dirudi H oiek antziñako euskeran «AR» izkiez asten ziran itzak H'a legez eraman bear zutela, erakusten digutela.

Ez ordea! Itun-agiri edo akta ontan bertan «AR» izkiarekin asten diran beste lau itz H'rik gabe agertzen bait zaizkigu:

Arriaga  
Arroyave

Arcaya  
Dardoza.

Beste pitxi nabarmen bat ere oartu dezakegu «AR» izkiez asten diran erri-izenen zerrenda ortan: Izen bera, alegia, bein H'z idatzia HARRIAGA, eta H'rik gabe beste bein: ARRIAGA. Ez da gaiñera, Arriaga, edozein erri ez-ezagunaren izena. Araba'n erri ospetsurik ba'da, erri ori Arriaga bait da, Araba'ko Batzar nagusien bil-tokia.

Ez da ARRIAGA, orrela, bi eratara idatzia, agertzen zaigun itz bakarra. Jaen ere orrela idazten bait digu Gaztela'ko Albontsa Yakintsuaren eskribauak: JAHEN, batzuetan; H eta guzti. JAEN besteetan; H'rik gabe. Eta baita erderazko Yon giza-izena ere: H'z orain JOHAN; H'rik gabe gero: JOAN.

HARECHAVALETA, era berean, H rekin ematen digu. Baiña, naiz Aretxabaleta bezela «AR»kin asi, H'rik gabe ARANGUYZ. ¿Zergaitik au gabe eta ua H'kin? Agian, Aretxabaleta'ren izena idatzi baiño lentxeago, HARRIAGA H'z idatzi zualako. Garai artan arau jakiñik ez zala, argi erakusten bait digu-H'aren dantzatze auek. Eta ori bera erakutsiko digute



orain azalduko ditugun itzek ere: Nai zuten bezela dantzatzen zutela H'a idazle aiek.

5'n.—H'a itzaren barnean daramakiten erri-izenekin bi sail egin ditzakegu: H'a abotsizkien artean daramatenera bat, eta H'a izki lagundun-ostean daramakitena bestea.

Aurreneko saillean 4 itz nabari ditugu: EHALY, VHULA, ZUHAZU, LA RAHUR. Bigarren saillean, 2: BEARH, OLHARIZU. Aztertu'itzagun sei izen auek:

—BEARH. Zalantzarik gabe Bearne da. Bertako jauna dala esaten zaigunak gaiskoin izena daramakilako (DON GASCON) eta, Bearth izenaren atzetik, erregearen idazleak Limoges aipatzen digulako. «Don Gascon bizconde de Bearth. Don Guy bizconde de Limoges». (Beste askoren artean itun-agiriaren ziñatzaile lez agertzen dira biak).

Ez uste izan BEARTH H'z idazteak «T» izkiz amaitzen diran izen danak H'z idatzi bear dirala esan nai duanik, «T» zamaitzen bait dan BETONNO H'rik gabe bait datorkigu idatzi ortan bertan.

H'a, «T»kin eta «T» aurretik «R»kin amaitzen diran itzetan erabilli bearra ote da? Ezta're! «R»kin eta «T»kin ez ezê, BEARTH bezela, «A»rekin «R»kin eta «T»kin amaitzen bait dira eskribau arek H'rik gabe ematen dizkigun LASART eta «URART». Ikus bada nola erabailtzen duan, gogoak ematen dion eran, nai duan bezela, H'aren idazkera eskribau zar arek. Ta ori..., Erregearen eskribaua zala! Errege «Yakintsua»ren eskribaua gañera!!! Arreta gutxi merezi du, beraz zerekin kidaturik ez daukagun OLHARIZU izenaren H'ak. Or gañera, maiz OLHARIZU itzean, «L»ren ostean H agertu, beste «L» berdin baten atzean, AULAGA itzean ez bait zaigu H'rik egeritzen. Aulaga'k bere barruan «ola» itza ez daramala? Bai ordea Mendiola'k!, eta batere H'rik gabe dakusgu izen ori: MENDIOLA.

Nabarmena duzu, beraz, idazki ontan, kontsonante edo izki lagundunaren atzeko H'ari buruz, legerik-eza edo anarkia. «Don TELLO» H'rik gabe ikusigo duzu. «Don SUERTHELLEZ» berriz, H'z orbandua.

6'n.—Abotsizkien osteko H'a erakusten diguten itzak aurkeztu nai nizuzke orain.

VHULA. Ba da gaur Araba'n Gujuli bat; Urkabuztaitz'en. Erri bera ote dira gaurko Gujuli au eta lengo Vhula ua? Edo..., ¿beste erri bat bai ote zan, emen Araba'n, Barruandia aldean, Gujuli zeritzana?

ZUHAZO. Zuazo asko dira gaur Araba'n. Eta baita Zuazu eta Zuaza ere. Gure idazki ontako ZUHAZU'k darakuzgun H ori ez da sekulan aizesoñuz, Gaztelerazko «J»ren antzeko aizesoñuz aboskatu Euskalerrian. «H» ori «G» bat izan da beti. Batere misteriorik gabeko «G» lander gixagaixo bat: Zugaza. Eta ori bera zan, eskierki, aipatu-berri dugun VHU-LA'ren H'a ere: «G» apal bare bat: Ugula. Ain zuzen, gaurko Gujuli'k ere ba du bere baitan «G» bat.

«J» bat ere baduala, eta gaurko «J» ori lengo «H»a izan daitekela? UHULA-GUJULA? Ez bâ. Gaur-eguneko Gujuli'ren «J» ori antziña «X» agoskatzen bait zan: GUXULI.

LARRAHUR: Itunben onen agirian «la Rahur» irakurriko duzu, baiña zalantzarik gabe erderazko «la» mugizki edo artikululu ori euskerazko «larra» itzaren lenen izkin edo silaba da. Eta euskal errixka aren izena, LARRAUR. Erderazko «la» ori izki txikerrez idatzirik dagola? Ez dio axolarik; orrela idatziak bait daude beste erri askoren izenak ere: «lasart», «trevinno», «marquiniz», eta abar.

Badut ala ere izen oni buruz zalantzatxo bat: Bere azkeneko «R» ori ondo idatzia ote dago? Ez ote da «L» bat?, edo «N» bat?: LARRAUL. Edo LARRAUN. Ez ote zaio, idazki ontako beste bi erriri bezela, —LASART, URART—, azkenean «E» bat falta? LARRAURE. Edo, LARRAURRE. Ez ote da LARRAURI izango?

Eta... LARRAHUR'ek daraman H ortaz zer esan? Ez beintzat «A» eta «U»ren artean H'a sartu bear dalaren adigarri danik, AULAGA'k eta OPAUQUA'k, H'rik ez bait daramate.

EHALY, gaurko Ali dugu. Toki batetik bestera, bate arrazoirik gabe, H'a dantzatuz, bi eratara idatzurik dator izen ori

Jokaera onek, Gaztela'ko erregeek Euskalerrian eskua sartzeko izan oi zuten kutizi neurrigabea dakarkigute gogora.

—Azkeneko larroetan Erregearen idazkariak bere izena ematen digu: «Johan Perez de Cuenca la escribiò el anno séptimo que el Rey Don Alfonso Regnó».

*Latiegi'tar Bixente*

**GUK EUSKERAZ...**

**ZUK**

**ZERGATIK EZ?**

**JOSTUNTZA ETA JOSTAILE EGOKIENA...**

**Azpiri'tar Estebanen dendan!**

Arragueta, 25  
Tel. 71 27 66

**EIBAR**